

naiz:

Sí te pasan
de 20 a 30 gigas
sin subir el precio,
se nota.

guuk.
FIBRA MÓVIL TV

Descúbrelo

0:20 / 0:

2024 URT. 19

Euskal Herri osoko sagardoa hartuko du aurrerantzean Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenak

Euskal Sagardoa Jatorri Izendapena aurkeztu dute ostiral honetan. Euskal Herri osoko produktua hartuko du eta aitzindaria izango da, Bidasoako bi aldeetako sagardoa hartzen duelako bere baitan. Aurrerago, Nafarroako sagar eta sagardotegiek ere sor-marka horretan sartzeko prozesuari ekingo diote.

NAIZ





Donostian aurkeztu dute Euskal Sagardoa Jatorri Deitura berria. (Gotzon ARANBURU | FOKU)

Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeak Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko sagardoak eta sagar barietateak hartuko ditu bere baitan hemendik aurrera, Euskal Sagardoa deitura berriarekin. Gainera, Europako Batasunaren oniritzia jaso bezain pronto, Nafarroako sagardotegiek ere izendapen horretan sartzeko prozedurari heltzeko konpromisoa hartu dute.

Ostiral honetan aurkeztu dute Donostiako Lakuako Gobernuaren ordezkarietan egindako agerraldian. Bertan izan dira Arantxa Tapia, Lakuako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburua; Jose Maria Aierdi, Nafarroako Gobernuako Landa Garapen eta Ingurumen sailburua; Joseba Erramundeguy, Euskal Herria Hirigune Elkargoko ordezkaria; Unai Agirre, Euskal Sagardoa jatorri-izendapeneko zuzendaria; eta Bixintxo Aphaul, Domaine Bordattoko sagardogilea. Foru Aldundietako eta sagar eta sagardoaren sektoreko hainbat ordezkari ere bertan ziren.

Ipar Euskal Herrian egiten den sagardoa hartzeaz gain, hango sagar motak ere Euskal Sagardoa Jatorri Deituran sartzeari adostu dute araudi bakarraren barruan. 'Euskal Sagardoa/Sidra del País Vasco' eta 'Cidre du Pays Basque' izango da izena.

Lakuako Gobernuak azaldu duenez, «une honetan, baimen administratibo guztiak jaso ondoren, Jatorri Deituraren ezaugarri berri eta berritzaile honen izapidetza Bruselarekin ixtear da». «Europar ez dago mugaz gaindiko araudi bakarreko bestelako

jatorri deiturarik eta hau izango da ezaugarri honekin jaioko den lehena», nabarmendu dute.

«Piriniotako mugaz gaindiko Jatorri Izendapena duen lehen edaria izango da Euskal Sagardoa. Araudi berdina izateaz gain, kudeaketa eta zertifikazioa ere bateratuta egitea adostu dute eta horretarako HAZIko Kontrol eta Zertifikazio arloa dagoeneko hasia da INAOrekin harremanetan Frantzia ere homologatua izateko eta Jatorri Izendapenaren zertifikazioa HAZIk egin dezan», azaldu dute.

«Konplexutasun administratibo handia»

Arantxa Tapiaren hitzetan, prozeduraren izapidetzea «oso aurreratuta dago» eta «konplexutasun juridiko eta administratibo handia» izan du, Erramundeguyk azpimarratu duen bezala. Izan ere, aurkeztutako eta trukaturako dokumentu guztiak hiru hizkuntzatarantz itzultzea eskatu dute.

«Europar ez dago araudi bakarrik duen mugaz gaindiko beste jatorri-deiturarik», nabarmendu du Tapia sailburuak, eta, beraz, berezitasun horrekin sortuko den lehena izango dela azpimarratu du.

Kalkuluen arabera, etorkizuneko 'Euskal sagardoa-Sidra del País Vasco-Cidre du Pays Basque-Euskal Sagardoa' jatorrizko deiturak salda horretako 62 egile hartuko ditu (50 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoak, 6 nafarrak eta 5 edo 6 Ipar Euskal Herrikoak), baita 390 sagar ekoizle ere.

40' ROCK

2024/02/24
DURANGO
LANDAKO
GUNEAK

naiz:

GINUKA ASTIDUEZ ORATZAK

HOFEX4:40*IBIL BEDI*NØGEN
ESNE BELTZA*DES-KONTROL
BELAKO*DAM*STREETWISE
RAIMUNDO EL CANASTERO
NEVADAH*ARENEG*BURUTIK
SU TA GAR

LAMIA MARI • KILIKI FREXKO DJ SET • XAUKENA XAUK
PINEAPPLE SWEETS • DJ KUKU & KENE

SARRERAK
AURREZ: 20€
BERTAN: 25€

EZ DA INOLAKO
ERASORIK
ONARTZEN!

PUBLIZITATEA



PUBLIZITATEA



PUBLIZITATEA

guuk.
FIBRA MÓVIL TV

Klikatuenak



La encuesta del grupo Vocento da vencedor a EH Bildu frente a PNV en las elecciones autonómicas 🗝



Los denunciantes insisten en la ilegalidad y el derribo del chalet de Xabi Alonso en Igeldo



Ondarroako mural bat, munduko onena eragin sozialaren kategorian



La edil del PP en Eguesibar, sobre el euskara: «Es una lengua que identificamos con el odio»



UPN compara el Monumento a los Caídos con el acueducto de Segovia para evitar que se tire

**De Juana
eta Arkaitz Bellon,
zigor beraren
adierazgarri**



artefaktua.naiz.eus

ARTEFAKTUA

1977 1999 2024